

PAKO ARISTI

UZTAPIDE ETA XALBADOR

BI ADISKIDE MUGAZ GAINDI



erein

U Z T A P I D E
E T A
X A L B A D O R

B I A D I S K I D E M U G A Z G A I N D I

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

IDEIAK 2023 mugaz gaindiko partaidetza proiektuak diruz lagundua.

1. argitalpena: 2024ko maiatzean

Azala eta liburuaren diseinua:

Erein

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Paco Marí. Kutxateka

© testuarena: Pako Aristi

© liburuarena: Zestoako Udala eta Urepeleko Herriko Etxea

© edizio honena: Erein argitaletxea. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-962-8

L.G.: D 458-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

PAKO ARISTI

UZTAPIDE
ETA
XALBADOR

BI ADISKIDE MUGAZ GAINDI

erein

EUSKAL KULTURA

Liburu hau Zestoa eta Urepelen arteko senidetze egitasmoaren baitan sortua da, herri horietan jaio ziren bi bertsolari ospetsu oinarritzat hartuta antolatu dena.

Uztapide eta Xalbador, Euskal Herri osoan ezagunak eta miretsiak, 30 urtez aritu ziren elkarrekin herriz herri bertsotan, eta gure kulturaren historiako gertakizun garrantzitsu batzue-tako protagonistak izan ziren.

Haiek sinbolizatu zuten, gainera, bi estatutan zatitua da-goien Euskal Herriaren samina, Ipar eta Hego elkarrengandik urruntzen dituen muga politiko bat dela medio.

Muga hori gainditu zuen haien adiskidantzak, hizkun-tzaren eragozpenetik hasita, eta askotan kantatu zuten bi lu-rraldeak batu beharraz, herri bakar bat osatzeraino. Urepeldar-rak laburtu zuen bezala: «Herria da gorputza,/ hizkuntza bihotza».

Xabier Unanue *Iruittari*, bertso-biltzaile
aparta izateaz gain mugarik gabe eskaini
didalako gordetzen duen dokumentazio
guztia.

Eta Xabier Amurizari, bere jakinduria,
aholku zorrotz eta energia baikorragatik.

AURKIBIDEA

14		<i>Zestoatik begira.</i>	Mikel Arregi Urrutia
15		<i>Urepeletik beha.</i>	Xole Aire Hasquet
17		<i>Hitzaurrea:</i>	
		<i>Bertsoaren mugalariak.</i>	Xabier Amuriza
21		Haur bat jaio da Endoian	
24		Eta beste bat Urepelen	
28		Paradisua edo	
31		Eskolatik ihes mendian gora	
35		Errabia eta lilura	
40		Bertsoaren unibertsitatea	
44		Beldurra lagun, edo etsai	
48		Non dago Urepeleko umea?	
52		Aitortza	

55		1936a Donostian
60		Pozik handiena
63		Zalantzak uxatuz
67		1936a Urepelen
71		Kanoikadak airea urratzen
75		Kantatzeko gogo gutxi
80		Basotik plazara
84		Desertuan ur xirripa
88		Parisen bertsolari
93		Ulertzen ez zioten pertsularia
98		Aldamioan maitekor
101		Duelua Zaldibian
104		Lehen atala
107		Ataka estuan
111		Umiliatu gabe irabaztea
114		Malkoak, purrustadak, amodioa
119		Eta neska laguntzak
122		Emakumearen gaia
125		Kafea eta atzerria
130		Lau txapelketa zazpi urtean
136		Bihotzak mugaren gaindi
142		Lau mila lehoiren orroa
145		Pospolo bat gasolina ontzian
148		Piztiak nola baretu
150		Hitzaren mirakulua
153		Bi txapel behar ziren
157		Txistuen oihartzunak
163		Txapelketaren sufrimendua

165		Uztapide mututu zenekoa
169		Petxuan halako min bat
171		Ibilera basatiak
173		Gizonaren etsi-aldiak
175		Laguntzarrene baserriko barrunbeak
178		Xalbadorrek ere baiezkoa eman zuen
181		Hiru bertso eta muxu bat
183		Emaztea ere bertsolari
185		Izenburu baten bila
188		Erlojuaren aurkako aurkezpena
190		Liburuaren ibilbidea
194		Iragarritako heriotza bat
199		Xalbador hiltzen dago
203		Testamentua eta zapata berriak
207		Zurekin amets
211		Zu baino lagun hoberik
214		Gazteen lagun
219		Non hago, zein larretan
223		Bizitzaren misterioari
227		Bere seme alabez abandonatua
230		Gu elkartuko bagina
234		Txerria hil gabe
237		Kanpo eta barne historia
242		Presa eta patxada
245		Bakartasuna da nire maisua
248		Uztapide ospitalean dago
251		Negarrez Ipar eta Hego
255		Azken bertsoekin doa despedida

OHARRA

Liburuetatik atera ditugun testigantzak bere horretan errespetatu ditugu, garaiko grafiarekin. Irakurlea ohartuko da gehienak *h*-rik gabe daudela, hori izan baitzen Antonio Zabalak Auspoa argitaletxean erabili zuen irizpidea.

Bertsoekin ere berdin: oraindik onartu edo ezarri gabe dago haiek transkribatzeko arau bat, eta liburuetan jaso ziren bezala daude emanak, koma batzuek gorabehera.

ZESTOATIK BEGIRA

Uztapide eta Xalbador, Zestoa eta Urepele, euskal kulturaren eta bertsolaritzaren bi erreferentzia eta Euskal Herriko bi herri. Bata Gipuzkoako Urola bailaran eta bestea Nafarroa Behereko Al-dude ibarraren muturrean.

Badira hiruzpalau urte Xolerekin harremanetan jarri eta bi bertsolari handien adiskidantza oroituz bi herrien arteko senidetzea antolatzeari ekin geniola. Geroztik behin baino gehiagotan urepeldarrak gurean izan dira eta gu ere Urepelen izan gara. Bi herri eta herri bat, kultura eta hizkuntza bera bihotz eta mingainean, gure artean mugarik ez dela ozen aldarrikatzeko sobera arrazoi. Bi estatu erraldoiren menpean egonik ere, Xalbadorrek behin Zestoan kantatu bezala, batzen bagara ez delako izango menperatuko gaituen Espainia eta Frantziarik.

Urepele eta Zestoaren arteko senidetzetik sortutako liburu hau euskal adiskidetasunaren lekuko aparta da eta bi bertsolari ospetsuen bizitzak ere gure izatearen adierazle izanik, jarrai dezagun adiskidetasunetik herria egiten.

MIKEL ARREGI URRUTIA
Zestoako alkatea

UREPELETIK BEHA

Urola ibarretik Urepele herrira heldu zauku Zestoako Mikelen komita. Komita goxoa, elgar adixkidetzeko asmoa, garaian Uztapide eta Xalbadorren bide beretik.

Harrigarria izan ditaik Zestoa bezalako herri gottorra, Urepele mendiko herri ttipiari interesatzea? Bizkitartean, Uztapide eta Xalbadorren biziak ikertuz, baita Urepeldarrak lehen aldikotz Zestoara hurbildu ginenean, adixkidetasuna begien bixtakoa da:

Zestoako eremu zabalean guk aunitz Urepele ttipi ikusi ditugu. Herri xumea, auzotan banatua, zoin beren eskola, etxe, pentze eta oihanekin. Gu, urepeldarrok gure burua etxean bezala sendiaraziz.

Xalbador eta Uztapideren bertsoak irakurtzean, baserriko bizimodu berdin-berdinak irakur ditzakegu. Errexki uler ditaik Xalbador gustura ibili zela Zestoa, eta Uztapidek lo goxoa egin zukeela Xalbadorrenean!

Uztapidek espainolez ikasi zuen gaztetan Arabara joanik, Xalbadorrek frantsesez Herriko eskolan, eta euskaraz adiskidetu ziren.

Gaur egun euskara sartu da Zestoa eta Urepeleko eskoletan. Euskara mugagabea da, Euskarak batzen gaitu, euskaratik gorpuzten dugu Herria.

Irakurle, liburu hau irakurtzean, bi bertsolari ospetsuen hitzen bitartez, errexki ulertuko duzu bi herriok dugun elkartzeko gogoia, naturaltasunez.

XOLE AIRE HASQUET
Urepeleko auzapeza

BERTSOAREN MUGALARIAK

Xabier Amuriza

Uztapide-Xalbador + Pako Aristi = emaitza original bat. Egingo al zenioke hitzaurrea liburu honi? Nola ez egin horren lan erraz eta atsegin bat?

Uztapideren lehen berria hamazazpi bat urterekin izan nuen, seminarioan, erdi isilpean, euskarazko liburuekin azpi-ikasketan hasi nintzenean. Bertso kontuek asko tiratzen zidaten. Ez daukat gogoan zein liburu edo aldizkaritan, Uztapideren puntu-erantzun hauxe aurkitu nuen:

–Tren batek zenbat erru-
bera ote ditu?
–Erantzungo nizuke
kontatu banitu.
Lelengo bearko da
azpira begitu.
Ipinitako danak
an izango ditu.

Buruz ikasi nuen. Gaur arte. Nik orduan seminaria joan-etorriak trenez egiten nituen. Eta gogoan daukat azken puntuak –«ipinitako danak an izango ditu»– grazia handia egiten zidala. Orduan eta orain. Ebidentzia horietako bat baita, zeinak, naturalaren naturalez, aurkikuntza bat dirudien. Oso geroago, jada bertsolari nenbilela, beste puntu hau jaso nuen, non edo norengandik gogoratzen ez dudana:

–Zer moduz bizi zera
lagun Uztapide?
–Gaur ez hain gaizki ere
festa hauek bide.
Nola eguna ere
neukan nahiko libre,
besteak bazetozten
da etorri naiz ni're.

Beste ebidentzia «original» bat. Gogoan dut nola Lazkao Txikik behin eta berriz esaten zidan: «Hi! Uztapideren hori xelebrea dek, e! Besteak bazetozten da etorri naiz ni're. Hori dek arrazoa!». Eta barrez leher-tzen zen. Ebidentzia bat izan al daiteke «originala»? Bai, nonbait, Lazkao Txiki bezalako «sorgin» bati halako grazia egiteko. Ni ez naiz hain «sorgin» kontsideratzen, baina bai grazia berdintsua egiten. Eta gauden gaian ga-biltzala, esango nuke puntu horrek bete-betea identifikatzen duela Uztapideren izaera eta ingenio mota.

Xalbadorren lehen berria 1960an izan nuen, hemeretzi urte nituela, Euskal Herriko bertsolarien gerra ondoko lehen txapelketako finalean. Gero etorriko ziren «Emazte zenduaren soinekoari», «Sorginarenak» eta abar. Xalbador «poeta bat» zela esatean, ez dut argi-argi ulertzen zer esan nahi izaten den. Diodan, soilki, «bertsolari bat», batzuetan genialitatea ukitzen zuena. Sarritan. Harritzen nau *Odolaren mintzoak*, eta ez gutxiago haren bat-bateko emariak, *Xalbador, bat-bateko mirakulua* izeneko diskoan frogatu nuen bezala. Bi ezaugarri jarriko ditut haren dohainaren islatzat: kontraposizioa eta esateko era. Kontraposizioaren adibide bat: «Gorputza latza badaukat ere, bihotza daukat biguna». Esateko eraren adibide bat: «Nihori nehoiz ezin dut gorde ene aurpegi iluna». Beste ezaugarri batzuk ere badira, noski, baina aipatu bien adibideak jarraian emango ditut, bakoitzak nahi duen sailean koka ditzan.

«Bi maitetarik bat galdu behar bizia edo laguna. Gure izakera desberdina da nola gauetik eguna. Alai agertzen naizela ere, bihotza daukat negarrez. Hemendik ez da frantsesik joanen, handik ez baita etorri. Gutarikan bat hor hiltzekotan, bertzea zendako bizi? Txistuak jo dituzute baina maite zaituztet orainik. Sortzeak hiltzea du beti ondorio. Zutan sortu ta zutan ha-ziak, zutan behar dugu guk hil. Haurtxoa sortu den ordurako heltzen dio

negarrari, bera pozetan balin bada're lanbide horri da ari. Ez naiz izar bat, hori badakit, ezta ere iguzkia. Arantzak dira nahigabeak, loreak amodioa. Ne-guaz pentsa gabe maitatu dut udan. Baina gorputzak uzten duena gero har-zen du arimak. Huna mutil bat eta hura ni gauak etxerat derama. Haren arropa hantxet dilindan penaz ikusten dut hutsa. Gabeziako ezbehar hoiek eginen tugu erdizka. Diruaren zai gelditzen gera bera etortzen deneko, ar-tean biak arkitzen gera maitasunaren meneko».

Gogoeta hau amaitzeko, bertso oso bat emango dut, Lazkaoko Do-marda soziedadean, agurrean kantatu zuena.

Ni pozik nagon toki batean luzaroan ezin egon
jakinagatik toki hoberik enetzat ez dela nehon.
Bihar andreak galdetzen badit nere bihotza nun dagon,
beldurrik gabe erranen diot: «Han utzi nuen Lazkaon».

Pieza osoa zirragarria izanik, hasierako bi puntuek hunkitzen naute gehien. Bada gero fatalitatea! Nolako edertasunez adierazten den guztiok noizbait, nik maiz, nabaritu izan dugun sentimendua!

Uztapiderekin lehen harreman pertsonala Oiartzungo bere Ergoien au-zoan izan nuen. Aurretik ere bai, behin edo behin, baina jendarte handian, bu-ruz buru hitz egiteko aukera gabe. Aukera zuzena eta ahaztezina Ergoiengo fes-tak izan ziren. Lopategi eta biok ginen deituak saio baterako, 22:00etan, auzoko plazan. Ordua baino lehenago iritsi ginen, eta Uztapide eta bere koinatu bat han aurkitu genituen lehen ilaran eserita. Hamarrak jota, Uztapidek galdetzen zuen: «Baina bertsolariak noiz dira, ba?». Eguna bere luzeenean zegoenean, ordu ho-rretan, oraindik argi-argi, ez zen beste arimarik ageri plazan. Azkenean, bildu zen noizbait jendea, eta hasi ginen, ia hamaikak jota. Niri zirrara ez ezik, dardara era-giten zidan Uztapide ikusteak, aurre-aurrean, bost metrora, aurreneko ilaran. Ondoren, bere andreak zeraman jatetxera joan ginen afaltzera. Joan behar zen, horixe baitzen Uztapideren ilusioa. Mahaian esertzean, Uztapideren koinatuak esan zuen: «Han egon gaituk gu zai, bi tonto bezela!». Eta Uztapidek: «Bi tonto bezela ez. Bi tonto!». Geroxeago, koinatua nahiko hitztuna baitzen, Uztapidek agindu zion: «Zaude pixka batean isilik, dakizuna baino gehiago ere esan dezu ta». Uztapide pozik ikusten genuen. Bertso batzuk ezin ziren falta. Kantatu ge-nizkion. Berak ere kantatu zigun. Bizpahiru urtetan errepikatu genuen saio on-doko afaria, kasik maitasunezko erritual bat bezala. Izan ere, Uztapide benetan maitagarria zela atera nuen lehen kolpetik.

Xalbadorrekin lehen harreman pertsonala Usurbilen izan nuen. Apaiz nintzela, bertso-saio bateko gai-jartzaile egin nuen, Xalbador eta Martin tar-tean ziren seikote batekin. Saio ondoren, jatetxe baten atariko arbolapeko mahai batean, solasaldi luzea izan genuen. Ni dena begi-belarri, entzuten eta obserbatzen, niretzat esperientzia berria baitzen hura. Ikusi nuen Xalbador kontalari handia zela. Eta ikusi nuen normalean solasaren ardatz izan ohi zen Lazkao Txiki isil-isilik eta arreta osoz egoten zela, Xalbador mintzo zenean. Gero, urte batzuetara, Lazkao Txikirekin asko tratatzeko zortea izan nuen, maiz aipatzen zizkidan Xalbadorren istorioak edo ateraldiak, esanez: «Hi! Xalbadorren hori ikaragarria dek, e!». Adibidez, ez dakit zenbat aldiz aipatu izango zidan honakoa. Xalbador zaldi-feria batean zegoen lagun batzuekin, zaldi baten inguruan, aberearen neurriez eta ezaugarriez eleka. Hartan, iristen da taldera beste gizon bat, entzute makur samarrekoa non-bait, eta dio zaldiaz: «Zaldi horrek lehen ere gizon bat hila dik». Eta Xalbadorrek: «Eraman beldur gabe. Zuen etxean ez du gizonik hilko». Usurbilera itzuliz, hamar bat laguneko tertulian, Xalbadorrekin buruz buru hitz egiterik ez nuen izan. Hurrengo abagunea txistuak jo zizkieten finala izango zen, ni ere epaile bertan. Hura ere ez zen aukera egokia harreman pertsonalerako.

Kontatuak horrela, esan dezaket Uztapide eta Xalbador euren jarduketik eta emaitzatik ezagutu ditudala. Emaitza aipaturik, ezin dut berriz airtortu gabe utzi nolako inpresioa egin zidan Uztapideren prosa-liburuak: *Lengo egunak gogoan*. Esan ohi da mundu hura bizi izan genuenontzat kontaera hunkigarria dela, baina uste dut hura bizi ez dutenontzat berriago eta eragileago izan behar duela Uztapideren prosak. Ahozkoa. Hain naturala, hain elegantea, hain gardenena. Nolako graziaz kontatzen eta deskribatzen duen bere mundu hura!

Xalbador ere bere obratik ezagutu eta miretsi ahal izan dut. Baina zertan ari naiz gaiari aurea hartzen, horixe baita liburu bitxi honen edukia? Pako Aristi da magoa, mugaz bi aldeetako bi pertsonaien konbinaziotik, joko original bat atera duena. Kazetaritza literarioa. Bertso-munduarien usain zer-bait duenak gozatuko du jokoaz, baina menturatzen naiz esatera ezen bertso-munduekin harremanik izan ez duenari ez zaiola gutxiago gustatuko. Izan ere, bertsoetik aparte, bi pertsonaia esanguratsu eta muga ezabaezin bat jokatzen baitira bertan. Ez dut amaituko liburuari arrakasta opatuz, ziur bainago izango duela.

HAUR BAT JAIO DA ENDOIAN

1909ko maiatzaren 10ean haur bat jaio da Endoia auzoko Uztapide base-
rrian, Zestoako udalerrian. Gurasoak Inazio Paulo Olaizola eta Maria Bizenta
Urbietza ditu, eta Manuel deitu diote, baina baserriaren izena nagusituko zaio
elizan jarri diotenaren gainean, eta hark emango dio izana ume horri haz-
ten denean: Uztapide izanen da denentzat.

3.100 biztanle inguru dauzka Zestoak 1909an, zeinetatik % 60 bizi
den kaskoan, eta beste % 40a udalerriak dituen dozena bat auzotan. Ne-
kazaritza da bizibide nagusia, baina Zestoako Bainuetxea oso ospetsua da Es-
painian eta Europan, bisitari asko erakartzen ditu eta turismoaren inguruan
ere antolatua dute biztanleek jarduera ekonomikoa.

Egun hartatik 64 urtera honela agertuko du Uztapidek zer zen base-
rri inguru hura:

Uztapidek, mendian izateko, terreno ordekak eta onak ditu. Soroak, danak
goldean-da errez egiteko modukoak, alde batera bezela bestera botatzeko
moduan. Gurdi bat zimaaur ateratzeko ere etzuan gurdiak kontu egin bea-
rrik. Orrek esan nai du terreno onak dirala.

Egurra ere olaxe, era berean, oso egoki. Ez genduan egurretara joa-
teko kezkarik izaten, zenbait lekutan bezela. «Gurdi bat egur bear da, ba!»
esango zuten emakumeak, eta ganaduak uztartu ta etzenduan lagun bearrik
andik gurdi egurra ekartzeko. Bakarrik lasai joaten al ziñan. An egongo
zan pago-egurra neguan botatakoa; kargatzeko ere etzenduan gurdiari eu-
tsi bearrik, eta kargatu ta etxera.

An, udaran, leioa zabalik zala lo egiten nuan nik. Galeperrak asiko ziran kantari: poxpolin ta poxpolin! Ura alegrantzia izaten zan angoa!

Neguan toki gogorra zan ura!

Noiznai elurra egingo zuan, da elurtea tristea da an. Zenbat eta mendiagoan eta tristeagoa izaten da elurra. Alturan, lañoa ere sartzen da lurreraño, ta illunabar aldean, txantxangorria gizonagana biltzen asten danean, ixtilla txat! txat! tellatutik bera... Orduan ez da ura paraje alaia.

Pasa egin bear izaten da ura, gero udara ikusiko bada.

Garai hartan umeen etxeko heziketa banatua zegoen bezala, oso garbia zen gurasoen funtzioa: aitari errespetua zitzaion, baina ama gozoago etortzen zen.

Ogei urterekin, nik ez nuan bertsotan da orrela aitaren aurrean egiteko ausardirik.

Ama, berriz, on utsa zan. Ark ere errieta egin oi zuan, baña etzuan miñik ematen aren errietak.

Manuel laugarrena da, eta gero beste lau etorriko direnez, haien amak badu nahiko lan, eta amona oroituko du Uztapidek txera berezi batez, hemeretzi urterekin ezkondata Uztapidera etorri zena:

Amona zarra ezagutu genduan asko. Gu sasoirik onenera etorrita ere, bizi zan ura artean. Gure etxean argi-indarra, nik ogei ta lau urte nituanean sartu zan, da ura etzan piatzen sorginkeri oiekin. Kuartoko argia ere beste batek pixtu bear: gure arrebak edo amak edo batedobatek beintzat.

Arditan izan da bustita etortzen bagin-an-edo, ark edukiko zuan gure kontua: oñetakoak eta erropak pronto eukiko zituan gaixoak. Kantu bat bazuan beti guri kantatu oi ziguna, Gabon-kanta bat, arditatik etortzen ginanean:

Gure lendabiziko artzaitxo pobriak,
eguzki aldetikan berriz Erregiak,
aiek ziran lenengo bisitatzalliak.

Maite giñuzen amonak! Gu bereak izan baginuzen ere, ez giñuzen maiteago izango. Bereak ere bazituan mordoska bat, maitatu nai izan ezkero.

Amabi bazituan, beintzat, bereak ere: sei seme ta sei alaba. Guk ere ezagutu giñuzen. Baña maitetasunik etzitzaion palta ala ere ari.

Gizona il zitzaion, baña bestela etzuan sendian edo pamelian oso suerte txarra iduki.

–Ogei seme-alaba azi ditugu –esan izan zuan–. Nik amabi eta erreñak zortzi. (Gure ama da atzeneko au.) Eta etxe onetatik ez da atera nere gizonaren gorputza besterik irurogei urte onetan. Irurogei urte dira ni ezkontzaz etxe onetara etorri nintzala oraintxe!

Beraz, amabi seme-alabarekin alargunduta gelditu zanak zerbait esango zukean. Dana dala, mundu-aldi ederra igaro zuan ala ere gure amonak.

Ala ere etzan aspertu bizitzen. Gure arreba zarrenari ala esan omen zion, il bear zuan aurrean:

–Nere lagunak, geienak joanak ditun; baña oraindik ere etzeukanat, ba, iltzeko gogo aundirik, onoko mutil auek ementxe utzita!

Etxe hartan bazuen aztiren batek orekaren bertutea hedatua, genero berdintasunaren aurrekaria: amonak sei mutil eta sei neska izan zituen bezala, Maria Bizenta Urbietak lau mutil eta lau neska ekarri baitzituen.

Handik berrogei urtera, Parisen, hau kantatu du Uztapidek:

Ia argitzen degun ba denok
gure memori ariña
euskera bizirik eukitzeko
badaukagu zer egiña.
Eta siñistu zein dan bera
bezin garbi ta berdiña
seaskan giñan artean gure
amak goxo itzegiña,
orreri eusten saia gindezke
seme jatorrak bagiña.